

Durangoko Udalaren

Euskara **S**ustatzeko **E**kintza **P**lana

2019 – 2022



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Aurkibidea

Testuingurua	3
Helburu nagusiak	3
Plana diseinatzeko prozesua	4
Diagnostikotik ateratako ondorio nagusiak	5
Esparruak, estrategiak eta ekintzak	8
1. Irakaskuntza-transmisioa-HEA	9
2. Kirola	10
3. Merkataritza	11
4. Etorkinak	12
5. Kultura	13
6. Hedabideak eta IKTak	15

Testuingurua

Orain aurkezten dugun *Durangoko Udalaren Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2019-2022* udalak onarturiko laugarren plangintza-aldia da, aurretik beste hiru onartu baitziren: 2005-2008, 2009-2012 eta 2013-2017.

Beste barik, azalpen batzuk emango ditugu euskararen Plan Estrategikoaren eginkizun nagusiei buruz.

Helburu nagusiak

- 1. Hizkuntza politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea euskaraz bizi nahi duten herritarrentzat.**
- 2. Euskararen aldeko urratsak areagotzea -maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean- euskararen berreskurapen osoa lortzeko.**

Udala eta udal administrazioa eredu eta bultzatzaile nagusia izan behar du arlo guztietan: euskararen jabekuntza, erabilera eta elikadura. Euskararen Plan Estrategikoa ez da Euskara Sailarena bakarrik. Hizkuntza gertaera soziala da. Horrexegatik, berebiziko garrantzia dute herritarren jarrerak eta praktikek euskararekiko. Horrek esan nahi du udaleko gainerako sailetan egiten denak eragin zuzena duela euskararen. Hortaz, lortu behar dugu Plan estrategikoa udal esparru guztietan txertatzea: kirola, gazteria, kultura, hezkuntza, gizarte ekintza, zerbitzu orokorrak, ekonomikoak eta teknikoak, udaltzaingoa, erakunde autonomoak, udal ordezkariak eta alkatetza. Beraz, sail bakoitzak euskararen plan estrategikoan definitzen diren helburu eta ekintzak bere sailean garatu behar ditu; euskara zerbitzuak, aldi oro, laguntza eta aholkularitza eskainiko die guztiei.

Ondorengo lerroetan proposatzen diren helburuak eta ekintzak udaleko euskara kontseiluak landu eta proposatukoak dira, aurretik egindako diagnostiko kualitatiboan jasotako datuak jaso eta gero. Prozesuan, herriko hainbat eragilek eta udaleko sail ezberdinek ere ekarpenak egin dituzte. Azken emaitza dokumentu honetan dago bilduta.

Laburbilduz, hurrengo lau urteotan sei esparru landuko dira: Irakaskuntza-Transmisioa-Helduen Euskalduntzea, Kirola, Merkataritza, Etorikinak, Kultura eta Hedabideak + IKTak.

Plana diseinatzeko prozesua

1. Udaleko euskara sailak prozesua abian jarri zuen.
2. Udaleko euskara kontseiluari prozesuan parte hartu dezala eskatu zitzaion.
3. Diagnostiko kualitatiboa egin genuen elkarrekin.
4. Planaren diseinua egiten hasi ginen.
5. Ekarpenak eta iradokizunak txertatu genituen.
6. Planaren zirriborroa kontrastatu genuen herriko eragile eta udaleko sail ezberdinekin.
7. Plana Euskara Kontseiluan adostu zen.
8. Plana Herrigintza batzordean aurkeztuko da, honek, irizpena eman dezan.
9. Osoko bilkuran eztabaidatuko da eta, bidezkoa balitz, onartu

Diagnostikotik ateratako ondorio nagusiak: lehenetsunak

Eremu ahulenak

erabilera

Gazteak

- Euren espazioetara iristeko estrategiak landu
- Erreferenteak bilatu eta horien bidez eragin

ezagutza

Atzerritarrak

Elkarlana atzerritarrekin harremanetan dauden eragileekin (Udaleko Immigrazioa Saila, Gizarte Zerbitzuak Caritas, Jaed, CEPA...)

- Ikastetxeekin batera jardun, Udaleko Hezkuntza Kontseilua

erabilera

Hizkuntza ohiturak aldatu

- **Euskaraldia** elkarlanean antolatu: erakundeak eta herriko entitateak (herritarrak)
- Egunerokoan eragin, erabilera gehitzeko
- Belarriprestak motibatu eta gehitu

Familia transmisioa

ezagutza

Umeen eta beraien familia eta inguru hurbilarekiko elkarrekintza bultzatu

- Eskolen bidez, gurasoen elkarrekin batera
- Umeei zuzendutako ekintzetan, antolatzaileekin batera: Gazteria Saila, Bizenta Mogel Udal Biblioteka, San Agustin, Musika Eskola, Berbaro elkarte...

erabilera

Irakaskuntza

Elkarlana ikastetxeekin

ezagutza

erabilera

- Hezkuntza Kontseiluarekin etengabeko harremana (lotura zehaztu)
- Euskal kultura curriculumean txertatu
- Eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz izan daitezen plana egin

Euskalduntze-alfabetatzea

ezagutza

Elkarrekin jardun Udal Euskaltegia, AEK eta Hizkuntza Eskolarekin **herritarrak euskalduntzeko**

Arlo sozioekonomikoa

ezagutza

erabilera

Dendak Bai elkartearekin batera jardun herriko komertzioetan eta kalean euskararen erabilera gehitzeko

Euskaraldia edota antzeko dinamikak abian ipini.

Kirola (Sozializatze esparru garrantzitsua da gazteentzat)

Euskara erabiltzeko dauden gabeziak identifikatu eta programak garatu

erabilera

- Durangoko Kirolak eta Udaleko Kirol Sailarekin batera (Erabilera Plana)
- Herriko klub eta kirol elkarteekin batera (Euskaraldia, hitzarmenak edota antzeko dinamikak abian ipini)

Kultura

erabilera

Herriko eragileekin batera jardun euskal kultura eta ekoizpena zabaltzeko

- Udal erakundeak: San Agustin kultur gunea, Arte eta Historia Museoa, Bizenta Mogel Udal Biblioteka, Musika Eskola, Musika Banda, Udal Euskaltegia
- Herriko entitate eta elkarteak

Euskararen kalitatea zaintzea

elikadura

- Herriko toponimia ofiziala eta zuzena erabili
- Hizkuntza-paisaia zaindu: Euskara Zerbitzutik aholkularitza eta itzulpen zerbitzua eman

Berdintasuna

PROGRAMA EDO PROIEKTUETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEKO IRIZPIDEAK

- Datu kuantitatiboetan sexuak bereizita jaso eta irakurketa berezitua egin (erregistro-orriak, gogobetetze-inkestak, galdeketak...).
- Informazio kualitatiboa jasotzerakoan, emakumezkoak zein gizonezkoak bermatu iturri gisa (elkarrizketatan, lantaldeetan...) Kopuru orekatuak.
- Emakumeen ahotsa bermatu (presente egoteaz gain, euren ikuspegia jasotzea, bozeramaile izateko eskatu).
- Komunikazio ez-sexista bermatu (irudietan, ahozko zein idatzizko hizkuntzan, euskaraz eta gaztelaniaz).
- Bateragarritasuna erraztu (bileren orduak jartzerakoan, gurasoentzako haurtzaindegi-zerbitzua jarri behar den baloratu...).
- Bilera-tokiak baloratu (irisgarritasuna, tokiaren ohiko erabiltzaileak zeintzuk diren...).
- Hartzen ditugun neurrien eragina gizonengan eta emakumeengan zein izan daitekeen hausnartu.
- Proiektuetan aritzen diren pertsonen ardurak banatzeko garaian, genero-ikuspegia kontuan hartu. Ardura orekatuak behar dute izan.

Esparruak, estrategiak eta ekintzak

1. Irakaskuntza-Transmisioa- HEA

Helburu estrategikoak	Estrategiak	Ekintzak · programak
1.1. Eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz izatea	Eskolekin, guraso elkarteekin eta herriko elkarteekin elkarlanean jardun	1.1.1. Eskolaz kanpoko jardueren diagnostikoa egin 1.1.2. Hitzarmena sinatu eskolen eta kirol eta kultura taldeen artean eskolaz kanpoko jarduna euskaraz izan dadin
	Diru-laguntzak eman	1.1.3. Euskara sustatzeko laguntzak eskaini elkarte eta ikastetxeei
1.2. Helduak euskalduntzea	Euskara ikasteko motibazioan eragin eta erraztasunak eman	1.2.1. Euskara ikasteagatiko bekak [Udal Euskaltegia + Udaleko Euskara Saila]
		1.2.2. <i>Berbalagun</i> hitzarmena Abarrak AEKrekin
		1.2.3. Ikastaro bereziak: Adin nagusikoak, zinegotziak, begirale, entrenatzaile, merkatari, ostalari, ...
		1.2.4. Euskara ikasteko gida (DMA?) Irailean, matrikula sasoian
1.3. Euskararen transmisioa bermatu: umeak, gazteak, inguru hurbila	Jaioberrien umeen gurasoak: familiak sentsibilizatu eta baliabideak eman	1.3.1. <i>Eman giltza</i> egitasmoa 1.3.2. <i>Bularretik mintzora</i> egitasmoa (0-6 urte)
	DBHko ikasleak euskarazko ereduetara bideratu	1.3.3. <i>Nahi dudalako: 11 ARRAZOI euskaraz ikasteko</i> + testigantzak
	Ume eta gazteentzako aisialdia euskaraz eskaini	1.3.4. Ume eta gazteei zuzendutako ekintzak: Uda Topera, udal ludoteka, udalekuak, ikuskizunak... [Gazteria, Kultura, San Agustin] 1.3.5. <i>Familian euskaraz olgetan</i> (jolas dinamizazioa: umeak [3-5 urte] eta familia elkarrekin) DMA 1.3.6. Gazteen [1. eta 2. batx.] euskararen erabilera bultzatzea. Motibazioa piztea. (Klak ! Egitasmoa, DMA)
	Baliabideak eman	1.3.7. Ume/gazteekin ahozkotatzea eta komunikatzeko gaitasuna landu ikasgelan: <i>Gu ere bertotan</i> egitasmoa

2. Kirola

Helburu estrategikoak	Estrategiak	Ekintzak · programak
2.1. Kirol taldeetako entrenamendu eta jardueretan euskararen erabilera handitu	Sentsibilizazioa landu	2.1.1. Entrenatzaile euskaldunen zerrenda egingo da hala eskatzen duenari laguntza eskaintzeko. DMA
	Formazioa euskaraz eman	2.1.2. Entrenatzaile euskaldunentzako ikastaroak antolatu (KIROLENE, DMA)
	Hitzarmenak osatu, dirulaguntzekin lotu eta jarraipena egin	2.1.3. <i>Euskara eta Kirola eskutik</i> hitzarmena (jarraipena)
	Dirulaguntzak eta aholkularitza eman	2.1.4. Dirulaguntza deialdia: "Euskara sustatzeko egitasmoak" 2.1.5. Dirulaguntza deialdia: "Argitalpenetan euskararen erabilera sustatzeko" 2.1.6. Dirulaguntza deialdia: "Euskarazko errotulu eta webetarako"
2.2. Kirol ekitaldi publikoetan euskararen presentzia bermatu	Kirol esatariak lortu	2.2.1. Kirol esatari/aurkezleen zerrenda egin eta argitaratu
	Ordenantzen jarraipena egin eta betearazi	2.2.2. Antolatzaileei jarraipena egiteko prozedura zehaztu (Kirol saila)
	Laguntzak eta aholkularitza eman	2.2.3. Itzulpen eta aholkularitza zerbitzua [Guk euskeraz]
2.3. Udal kiroldegiko eskaintza euskaraz izan dadila bermatu	Ikastaro guztiak euskaraz eskaini	2.3.1. Euskara plana
	Ordenantzen eta euskara erabiltzeko Udalaren irizpideen jarraipena egin eta betearazi	2.3.2. Antolatzaileekin batera jarraipena egiteko prozedura zehaztu
	Laguntzak eta aholkularitza eman	2.3.3. Itzulpen eta aholkularitza zerbitzua
2.4. Kirol klubetako sare sozialetako komunikazioak euskaraz izatea	Euskararen Udal araudiari jarraitu Laguntza teknikoa eskaini	2.4.1. <i>Euskara eta Kirola eskutik</i> hitzarmena egokitu kirol klubekin. Sare sozialen eragina eta inpaktua kontuan hartu.

3. Merkataritza

Helburu estrategikoak	Estrategiak	Ekintzak · programak
3.1. Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetan ahozko eta idatzizko erabilera handitu	Euskaraldiaren inertzia aprobetxatu	3.1.1. Sentsibilizazioa eta motibazioa landu merkatarari eta ostalariak <i>Ahobizi</i> eta <i>Belarriprest</i> izan daitezzen.
	Baliabideak eta laguntza eman	3.1.2. Establezimenduen autonomia landu idatzizko euskara handitzeko: <i>Euskara eskaintzarik onena</i> . <i>Guk euskeraz</i> zerbitzua eman.
	Euskaraldia, baliabideak eta laguntza eman	3.1.3. Enpresa, merkatarari, ostalari eta zerbitzuei entitateei sentsibilizazio ekintzak zuzendu publizitatean euskara erabil dezaten
	Merkatararien elkartearekin hitzarmena egin	3.1.4. Ikastaro espezifikoak antolatu. Hitzarmena sinatu Denda Bai elkartearekin
3.2. Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako hizkuntza paisaian euskararen erabilera handitu	Udalak laguntza teknikoa eta diruzkoa eman eta horien zabalpena egin	3.2.1. Itzulpen eta aholkularitza zerbitzua (<i>Guk euskeraz</i>) euskarriak euskaraz egon daitezzen.
		3.2.2. Diru-laguntzak errotuluak euskaraz jartzeagatik
		3.2.3. Udalak ematen dituen euskara zerbitzuak eta diru-laguntzen berri eman (errotuluak eta webak, itzulpenak, euskara ikastea...) Euskarri digitala eta paperezkoa egin eta komertzioei eman eta azaldu.

4. Etorkinak

Helburu estrategikoak	Estrategiak	Ekintzak · programak
4.1. Etorri berriei hizkuntza harrera euskaraz izan dadila bultzatu herri-administrazio eta erakundeen aldetik	Harrera egiten dutenengan eragin	4.1.1. Harrera protokoloa bateratzeko irizpideak ezarri (eta gida praktikoa egiteko aukera aztertu)
	Kultura arteko ezagutza bultzatu	4.1.2. Munduko arrozak, Euskal Jaiak...
4.2. Etorri berriei euskara erakutsi eta euskal kulturara erakarri	Etorkin helduek euskara ikasteko baliabideak jarri. Eskolaren bidez eskaintza egin	4.2.1. Etorkinen beharrezan araberako ikastaroak eskaini: helburu eta eskakizun ezberdinetara egokituak, malguak ordutegiari dagokionez eta jarraipena izango dutenak urte osoan zehar (AISA, tutoretza, doakotasuna [A1 eta A2])
	Ume eta gazte etorri berriek euskara ikasteko baliabideak jarri	4.2.2. Euskara errefortzuak eskola ume/gazteei LH eta DBH 4.2.3. Ume eta gazteak eskolaz kanpoko euskarazko jardueretara bultzatu 4.2.4. "Familia laguna" egitasmoa. Familia euskaldunen eta etorkinen arteko harremanak eta euskara bultzako duten ekimenak sustatu eta lagundu.

5. Kultura

Helburu estrategikoak	Estrategiak	Ekintzak · programak
5.1. Euskarazko kultur eragileen eta udalaren arteko ikuspegiak, plangintzak eta baliabideak bateratu	Durangoko euskarazko kultur eskaintzaren koordinazio mahaia eratu	5.1.1. Kultur agenda osatu eta euskararen aldeko diskriminazio positiboa egin 5.1.2. Kalean zein prentsan agertzeko 'Durangoko euskarazko kultur ekintzen agenda' sortu. 5.1.3. Sarean eta paperezko prentsan euskarazko kultur ekintzei ikusgarritasuna eman (hedabideak, sare sozialak...)
	Dirulaguntzetarako hizkuntza-irizpideak	5.1.4. Kultura saileko dirulaguntzetan euskarazko ekimenak saritu
5.2. Elkarte estrategikoek euskaraz lan egitea lortu	Kultura elkarten diagnostikoa egin, herrian eragin handiena nortzuek duten aztertzeko.	5.2.1. Euskaraz funtzionatzeko zailtasunak dituzten elkarteetan eragin eta lagundu. Hitzarmenak egin euskararen erabilera bermatzeko. 5.2.2. Itzulpen eta aholkularitza zerbitzua (Guk euskeraz)
5.3. Euskarazko kulturaren transmisioa bermatu	Euskarazko produkzioak eta sormena bultzatu: irakurzaletasuna, ahozkotasuna, zinea, antzerkia euskaraz,...	5.3.1. Bertso-saioak eta ikuskizunak 5.3.2. Zinea euskaraz 5.3.3. Antzerkia euskaraz (San Agustin kultur guneko programazioa: ume, gazte eta helduentzako) 5.3.4. <i>Durangoko Azoka DA!</i> (hitzarmena kultura sailarekin) 5.3.5. Bizenta Mogel Udal Biblioteka: Irakurketa klubak, ipuin kontaketak, bibliobisitak, Book trailer lehiaketa, tailerrak... 5.3.6. Haur Literatura Aretoa [Haur eta gaztetxoek artean euskararen erabilera eta euskal literatura hedatzea. Trebetasunak eta sormen ahalmenak garatzea. (DA!)]
	Dirulaguntzak eman	5.3.7. Euskara sustatzeko diru-laguntza deialdia elkarte eta ikastetxeei
	Euskal ondarea jaso eta ezagutzera eman [Web gunearen eta sare sozialen bidez]	5.3.8. Ikerketak diruz lagundu 5.3.9. Sortuta dauden ikerlanak eta materiala eguneratu eta ezagutzera eman: [Toponimia, Durango Ezagutu, Ahotsak, http://kulturaondareasaria.blog.euskadi.eus/...]
	Euskal ohiturak eta tradizioak indartu. Kultura eta ikastetxeetako planetan finkatu eta diruz lagundu	5.3.10. Santa Ageda, Txitxiburduntzi, Inauteriak (surrandiak), Gaztañerre, Durangoko Azoka, Gabonak (Santo Tomas, Olentzero, gabon kantak...) 5.3.11. LH, DBH eta Batxilergoan txertatu euskal kultura arloko jarduerak 5.3.12. "Durango ezagutu" herri kurrikuluma eguneratu eta bere erabilera dinamizatu eskoletan

Helburu estrategikoak	Estrategia	Ekintzak · programak
5.4. Euskarazko sorkuntza bultzatu eta sortzaileen lanak ezagutarazi	Idazteko zaletasuna eta sormena sustatu	5.4.1. Julene Azpeitia lehiaketa 5.4.2. Sormen idazketa eskola [formazio tailerrak irakasleei, ikasleei...] [Julene Azpeitia lehiaketarekin lotura egin]
	Literaturara hurbiltzea, sortzaileak eta sormen lanak ezagutaraziz [Web gunearen eta sare sozialen bidez]	5.4.3. Euskal testuen irakurketa publikoak bultzatzea: Hitzez eta ahotzez egitasmoa
	Sorkuntza lanak saritu eta hedatu	5.4.4. Sormen beka Da! 5.4.5. Arte eszenikoak: Karrika antzerki taldea; Zugan ni (Markeline, hezitzaileak); ZUBI, euskal antzerkiaren sortzaile berriei laguntzen. Eszenatokia DA!, 8. gunea.
5.5. Udalak eskaintzen dituen ekintzetan euskararen erabilera bermatu	Udalak onartuta dituen hizkuntza irizpideak betetzeko prozedura zehaztu	5.5.1. Euskararen erabilera ziurtatu Durangoko eta auzoetako jaietan egiten diren ekimenetan; baita inauterietan, Gabonetan eta antzekoetan ere.

Hedabideak eta IKTak

Helburu estrategikoak	Estrategiak	Ekintzak · programak
6.1. Hedabide pribatuetan euskararen erabilera handitu	Diru-laguntzak eman, hitzarmenak egin	6.1.1. Anbotorekin hitzarmena 6.1.2. Udalerrri mailako elkarten eta entitateen aldizkako argitalpenetan euskararen erabilera sustatzeko laguntzak (lehen Kulturari)
	Eskualde mailako hedabideetako euskararen presentzia aztertu eta areagotzeko nahiz kalitatea hobetzeko neurriak adostu	6.1.3. Tokiko edota eskualde mailako hedabideekin egiten diren diru-laguntza hitzarmenetan, hizkuntza betebeharrak zehatu (publizitatea kontuan hartu)
	Baliabide teknikoak eskaini (zuzenketak...)	6.1.4. Itzulpen, zuzenketa eta aholkularitza zerbitzua (Guk euskeraz)
	Udaleko erabilera planeko hizkuntza-irizpideak	6.1.5. Udalaren publizitatea edo iragarkiak euskaraz txertatzea, euskarazko zein gaztelaniazko hedabideetan
6.2. Durango Irratian euskararen erabilera handitu	% X euskaraz	6.2.1. Euskararen portzentajea igo, derrigortasun indizearen mailaraino (%60)
	Bi hizkuntzetan egiten diren saioretan euskarak lehentasuna	6.2.2. Euskararen presentzia lehenetsi audientzia handiko orduetan
6.3. Sarean informazio gune iraunkorra eta eguneratuta izatea	Informazio eta komunikazioa iturriak topatu eta erabili	6.3.1. Euskara Sailaren web gunea, facebook eta twitter kontuak eten barik elikatu
	Udal barruko erabilera planaren bidez	6.3.2. Udal sailtako sare sozialetan (Facebook, Twitter, Instagram, Whatsapp...) euskararen erabilera lehenetsi 6.3.3. Udal langileak trebatu sare sozialetan euskara era egokian erabiltzeko
	Egitasmoen eta kanpainen zabalkundea sarean egin	6.3.4. Euskarri digitalak sortu egitasmoen, kanpainen eta programen berri eman eta sarean zabaltzeko